

Euskara gaitasuna areagotzeko ludoteka eskaintza

*Servicio renovado de ludoteca para
promocionar el uso del euskara*

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 → Euskara ikasteko eta euskaraz hitz egiteko aukerak zabalduz
- El Ayuntamiento adjudicará este mes las obras de Nekolalde y de los ascensores de Oria Pasealekua y Zazpiturrieta
- Ludoketa zerbitzua hizkuntza errefortzu gisa

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 → Monozikloko munduko DownHill txapelketa
- Ehunmilak
- San Gregorioko dantzaldia
- Igartza musika
- Fusilatuen eguna
- Kale antzerkia

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 → Beasaingo Txolarte aisialdi taldea (Atzegi)

IRAILEAN BEASAINEN...

GUTUNA

Aitor Aldasoro
Beasaingo alkatea



EUSKARA IKASTEKO ETA EUSKARAZ HITZ EGITEKO AUKERAK ZABALDUZ

Hizkuntza-aniztasuna gero eta ageriago dago gure kaleetan. Harrigarri bezain kezkarri suertatzen zait belaunaldi berriek euskarari bizkar nola ematen dioten ikustea eta nortasun baten altxorrik preziatuena ez zaintzea.

Gabezia horiek agerian, gure hizkuntzan ere bizi nahi dugunoi, euskararen normalizaziorako urratsak ematea ezinbestekoa zaigu, Beasain euskaldunago baten alde egiteko. Baina helburua bezain garrantzitsua da egin beharreko bidea eta bide hori jorratzeko modua. Euskara sustatu nahi badugu eta euskararen erabilera indartu, ezinbestean, pertsonak trebatu beharko ditugu. Haur, nerabe, gazte eta helduak euskaraz eta euskal kulturen hazi eta hezi behar ditugu.

Argi dugu euskararen erabilera indartzeko tresna egokiak landu eta jarri behar ditugula herritarren eskura, norberak bere ikasgelan, aisian edo lantegian giro egokia aurki dezan.

Aisian esku-hartzea jo dugu ezinbesteko bide honetan aurrera egiteko. Harri horri tiraka, kirol esparurako proiektua dugu esku artean. Diagnostika egiten hasiak gara eta zein neurri abiarazi behar diren partekatuko dugu eraginpeko taldeekin, neurri horiek egunerokoan txertatu bitartean.

Gaztetxoenei ere, 4-12 urte bitartekoei, orain arteko ludoteketan eta ikastetxeekin elkarlanean, beharrik handiena dunetenei hizkuntza errefortzua eskainiko diegu, gure txikienek eskolaz kanpoko jardueren bitartez bere egin dezaten euskara. Ez nuke Udal Euskaltegia aipatu gabe utzi nahi, helduentzako euskarri garrantzitsu dena. Euskararekin zailtasunak dituzten haur eta helduei, euskaraz ikasteko eta euskaraz hitz egiteko aukerak zabaltzeko behar ditzkiegu, azken batean, erabilera baita hizkuntza baten biziraupenerako giltzarri bakarra.

EL AYUNTAMIENTO ADJUDICARÁ ESTE MES LAS OBRAS DE NEKOLALDE Y DE LOS ASCENSORES DE ORIA PASEALEKUA Y ZAZPITURRIETA

En julio se aprobaron la modificación del proyecto de urbanización del área de Zazpituirieta y los proyectos correspondientes al ascensor de Oria pasealekua y la urbanización de Nekolalde. En este periodo, las



empresas interesadas han podido presentar sus propuestas y después de analizar las mismas, este mes el Ayto. adjudicará las obras a las empresas licitadoras que mayor puntuación obtengan en cada proceso.

Zazpituirieta: ascensor y urbanización

La ejecución de las obras correspondientes a éste área se llevarán a cabo en varias fases. Por ello, se adjudicarán primero las obras del ascensor y después las obras de urbanización, a fin de que la construcción del ascensor comience cuanto antes; previsiblemente en octubre.

Además, gracias al nuevo proyecto de urbanización y al cambio en el convenio firmado con la promotora encargada de la construcción de las próximas viviendas en dicha área, el Ayto. asumirá sólo el 40% del gasto de construcción del ascensor, ahorrando así 80.000 euros.

	ANTERIOR	ACTUAL
PROYECTO	Proyecto ascensor Olan + convenio promotora	Proyecto ascensor Zazpituirieta + convenio promotora
Coste total	297.098€	238.717€
A pagar	%60 174.659,29€	%40 95.487,02€
Ahorro	80.000€	

Nekolalde kaleko egokitzapen lanak eta Oria pasealekuko igogailua, gero eta gertuago

Nekolalde kaleko egokitzapen lanen baitan, saneamendua sarea eta kale-argiztapena hobetuko dira, batetik, eta zoru guztia altuera berean ezarriko da, bestetik, tokiko irisgarritasuna hobetzeko. Horri esker, aparkaleku kopurua handitzea ere lortuko da; lanen ostean bizilagunek 35 aparkaleku izan ordez, 50 izango dituzte. Irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin eraikiko da, baita ere, Oria pasealekuko igogailu berria; hau Ezkierdi frontoiko zutabe biribilaren alboan kokatuko da eta Oria Pasealekua eta Mariarats kalea lotuko ditu.

LUDOKETA ZERBITZUA HIZKUNTZA ERREFORTZU GISA

Euskara udal politikaren erro garrantzitsua izanik, gobernuak, ludoteka zerbitzua hizkuntza errefortzu gisa eskaintzea erabaki du, euskararen kaleko erabilera indartzeko helburuz.

Lau urterako adjudikazioa amaitu denean, plegu berriek gazteengan euskararen erabilera indartzeko beharrari erantzungo diote. Jasotako datuak alderatu ondoren, zerbitzuari lotutako helburu eta baliabideak doitzera erabaki du Udalak. Aurrerantzean beraz, ludoteka aisiarako espazio gune izateaz gain, euskararen erabilera indartzeko gunea ere izango da. Izan ere, euskararen presentzia bermatu nahi bada, erakundeek ezinbestekoa dute euskararen erabilera sustatu eta bermatzeko tresna egokiak herriarren zerbitzura jartzea. Eta tresna horien baitan kokatu du Udalak ludoteka eskaintza.

Eskolaz kanpoko jardueren bitartez, haurren hizkuntza gaitasuna eta euskararen erabilera areagotu nahi dira, beti ere aisiari atxikita. Horregatik, euskararekin zailtasunak dituzten haurrei edota eskolatik kanpo euskaraz egiteko aukera gutxi dituztenei eskainiko zaie aipatu zerbitzua.

Egindako diagnosiak jarraian azaldutako datuak plazaratu ditu:

LUDOTEKA	- Bazkide eta erabiltzaileen kopuruak nabarmen egin du behera. Txelotxek harrera ona izaten jarraitzen badu ere, Berritsun azken urtean zeharo jaitsi da asistentzia - Zerbitzuaren kostua, Gaztelekua barne, 100.000€koa da urteko
GIPUZKOAN	Beste herrieekin alderatuz, Gipuzkoan ez dago herri handi zein txikirik, batzaz beste hain haur gutxi izanda horrelako zerbitzurik eskaintzen duenik
AISIALDI ESKAINZA BEASAINEN	- Aukera oso zabala: Kenpo, Ostadar, Aurtzaka, igeriketa, saski-eskola, futbol-eskola... - Aurtzakak, saski eskolak eta futbol eskolak 4-12 urte bitarteko 200 haur inguru hartzen dituzte bakoitzak - Ludotekaren hileko kostuarekin alderatuta garestiagoak dira, baina halere harrera hobea dute
EUSKARAREN ERABILERA	Kalean, euskararen erabilerak nabarmen egin du behera



En este contexto en el que ha aumentado el conocimiento del euskara, pero no así su uso, el principal reto es lograr aumentar el uso del euskara en la calle, poniendo a disposición de la ciudadanía las herramientas necesarias para ello. Así las cosas, siendo el euskara y su promoción uno de los principales ejes de la política municipal, el equipo de gobierno ha optado por restablecer el servicio de ludoteka como refuerzo del euskara.

En adelante, la ludoteka, además de ser un espacio de ocio, será un espacio educativo cuyo principal objetivo será fomentar el uso del euskara a través del juego. Este nuevo servicio irá dirigido a todas y todos aquellos niños y niñas que más lo necesiten, identificando dichas necesidades junto a los centros educativos, a fin de ofrecer nuevas oportunidades y un nuevo servicio y espacio el que puedan aprender, practicar y avanzar, jugando, en el uso y conocimiento del euskara.

UZTAILA-ABUZZTUA BEASAINEN



Monozikloko munduko DownHill txapelketa

Munduko Monoziklo txapelketaren egoitza izan da Donostia, eta honen baitan, abuztuaren 1ean, DownHill edota jaitsiera disziplinaren proba ospatu zen Beasainen, munduko 600 monoziklistarik onenak geurean elkartuz.



San Gregorioko dantzaldia

Ehunmilak



Sailkapen orokorra:
Gizonezkoak: Javi Dominguez, Adur Mendizabal,
Jon Aizpuru
Emakumezkoak: Silvia Ainhoa Trigueros, Severine
Duhalde, Agurtzane Argiarro



Igartza musika



Fusilatuen eguna



Kale antzerkia



BEASAINGO TXOLARTE AISIALDI
TALDEA (ATZEGI)

ANE MOZO, Beasaingo Txolarteko koordinatzaileari, ELKARRIZKETA

Elkartea ezagutzen ez dutenentzat, zertan oinarritzen da zuen lana?

Gure lana, hitz gutxitan esanda, adimen urritasuna duten pertsonen euren aisialdian ekintza ezberdinak egiteko aukera eta laguntza ematea da.

Txolarteak, adimen urritasuna duten 16 urtetik gorako pertsonentzako aisialdi eta denbora libreko taldeak dira. Atzegi-k (Adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak) eskaintzen dituen zerbitzuen artean kokatuko genuke. Gaur egun 13 txolarte daude Gipuzkoan, horietako bat Beasaingo Txolartea delarik. Gure taldearen elkargunea Oriamendi kalean dago.

**Zenbat kide eta boluntario zarete aisialdi taldean?**

Goierrri eskualdeko 32 kidek osatzen dugu aisialdi taldea: 26 parte-hartzailek eta 8 boluntariok. Parte-hartzaile gazteenak 21 urte ditu eta helduenak 60 urte.

Norberak bere lana izanik, nola antolatzen zarete zuen artean gauzak prestatzeko? Zailtasunik izaten al duzue asteburueta eginkizunak burutu al izateko?

Ikasturte hasieran plangintza orokor bat egin ohi dugu kide guztion artean urtean zehar egin nahi ditugun eta egin ditzakegun ekintzak zehazteko. Ondoren, ikasturtea aurrera doan heinean, datak eta ekintza bakoitzaren nolakotasunak zehazten ditugu elkarrekin. Azken boladan ordean, boluntario falta dela eta, ekintza dezente bertan behera uztea egokitu zaigu. Horrenbestez, ikasturte berri honetarako boluntario berriak behar ditugu taldea indartzeko. Boluntario izateko, bete beharreko baldintzak, 18 urte izatea eta adimen urritasuna duten pertsonetik, jarrera positiboa, irekia eta denbora emateko gogoia izatea dira.

Zein jarduera mota egiten dituzue? Eta zenbat pertsonek hartzen dute parte ekintzetan?

Larunbat arratsaldeetan, 4retatik 7etara elkartzen gara gure elkargunean eta ekintza ezberdinak egiten ditugu: Gabonetarako egiten dugun jaialdia prestatu, sukaldaritza tailerrak, eskulan tailerrak, herrian zehar paseatu, "pote" batzuk hartu lagun artean... Egun osoko irteerak ere burutzen ditugu: Tolosako inauterietara eta Donostiako Aquariumera zein Tabakalerara, besteak beste. Batzuetan, 25 pertsona elkartzen gara larunbatero.

Ehunmilak antolatzen ere ibili zarete Txolarteko kideak. Nolakoa izan da esperientzia?

Zer dira Txolarteak?

Zer da Atzegi?

Atzegi, Adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarte da. Beren bizi kalitatea hobetzearen alde egiten du lan eta haien familiei aholkularitza eskaintzeaz gain, gizartea sentsibilizatzeko kanpaina ezberdinak gauzatzen ditu. Era berean, kolektiboaren alde lan egiten duten beste erakundeekin elkarlanean dihardu Atzegik.

3 helburu nagusi ditu elkarteak:

1. Familiei babesa ematea
2. Gizarteak kolektibo honekiko sentsibiltatea izatea
3. Urritasuna duten pertsonen garatzeko eta aurrera egiteko aukerak ematea

Adimen urriko pertsonen autonomia garatzeko zerbitzu ezberdinak eskaintzen eta eratzen ditu Atzegik, horien artean ditugu Txolarte aisialdi taldeak.



Oso esperientzia aberasgarria izan da guztiontzat. Aurten korrikalarientzako egokitzen den aparkalekuaren kudeaketa guztia gure esku gelditu da, oso eskertuta gaude Ehunmilak-ekoekin. Aukera honekin adimen urritasuna duten pertsonen ere horrelako ardurak oso ongi burutzen dituztela erakutsi dugu. Euren lana serio eta gogotsu egiten dute.

Zein onura eragiten dizkie adimen urritasuna duten pertsonen horrelako ekintzetan parte hartzeak?

Euren gaitasunak zeintzuk diren erakusteko aukera ezin hobe bat dute eta egin behar horiek edozeinek bezalaxe egiteko gai direla erakusten digute lehenengo momentutik. Partaide baloratuak eta lagungarriak sentitzen dira. Hortik, Ehunmilak-en, aurreko urtean bezala, aurten ere boluntario lanean jardun izana.

Gizartearen sentsibilizazio aldetik eman al dira aurrera pausoak azken urteotan?

Eta etorkizunera begira, zein urrats ditugu emateko?

Azken urteotan aurrera pausuak nahi baino motelago ematen ari dira. Oraindik pauso asko eman behar dira lortu nahi dugun gizarte inklusiboa lortzeko. Horietako bat, gizartean adimen urritasuna duten pertsonen dituzten gaitasun eta ahalmenen inguruan dagoen ezjakintasunarekin amaitzea da.

Nola eta zergatik animatuko zenuke jendea Txolarteko boluntario egitera?

Larunbat arratsalde bat Beasaingo Txolarteko kideekin igarotzera animatuko nuke jendea, hori baita modurik egokiena Txolarte zer den jakiteko eta bertako partaideak ezagutzeko. Adimen urritasuna duten pertsonen aisialdiaz gozatzeko aukera izan dezaten lagundu eta esperientzia berri bat bizi nahi baduzu, anima zaitez Txolartean parte hartzera! Gerturatu zaitez, ez zara damutuko! (Txolarte Beasain 687 328 330)

JABEKUNTZA IKASTAROAK 2016-2017 | CURSOS DE EMPODERAMIENTO

1. GENERO eta BERDINTASUNA II URRATSA (2016/09/12-2017/05/08)
2. VIOLENCIA MACHISTA. HERRAMIENTAS PARA EL ACOMPAÑAMIENTO A MUJERES VÍCTIMAS QUE ENFRENTAN VIOLENCIA (2016/09/16-2016/10/01)

Izen ematea | Inscripción: Irailak 13 arte | Hasta el 13 de septiembre

Informazio gehiagorako: berdintasun@beasain.eus / 943 087 663



KZ gunea IKASTAROAK

Urruneko formakuntza Formación a distancia

Ikastaroa Curso	Hasiera Inicio	Iraupena Duración
Marka Pertsonala eta LinkedIn Marca Personal y LinkedIn	2016.09.21	2 aste 2 semanas
Argazki ukitua Gimp erabiliz Retoque fotográfico con Gimp	2016.10.05	4 aste 4 semanas
Android sistema eragilea Sistema Operativo Android	2016.10.05	4 aste 4 semanas
Lan-bilaketa interneten Búsqueda de trabajo en internet	2016.10.05	4 aste 4 semanas

Ikastaro presentzialak Cursos presenciales

Ikastaroa Curso	Hasiera Inicio	Iraupena Duración
Internet básico	16.09.2016 30.09.2016	20h (09.00-11.00) 20h (18.00-20.00)
Libreoffice (euskara)	23.09.2016	20h (11.00-13.00)
Google Apps	15.09.2016	16h (18.00-20.00)
Redes Sociales	29.09.2016	8h (16.00-18.00)
Imagen (euskara)	30.09.2016	16h (09.00-11.00)

Informazio gehiagorako: www.kzgunea.eus

Udal Euskaltegiak

Izen ematea | Inscripción



CURSO
2016/2017
IKASTURTEA

ATE IREKIAK

Jornada de
PUERTAS ABIERTAS

IRAILAK **15** SEPTIEMBRE
11:00 | 16:00 | 18:00

Bisitarien artean
2016-2017
ikasturterako
matrikula bat
zozketatuko dugu

Sortearemos una
matrícula para el
curso 2016-2017 entre
los y las visitantes

Irailaren 5etik 20ra | Del 5 al 20 de septiembre

Ikastaro motak | Tipos de cursos

Astean 2-4 egun edo trinkoak 3 hilabetekoak
2-4 días por semana o intensivos de 3 meses
Gurasoentzako, auto-ikaskuntzarako ikastaroak
edota hizkuntza tailerrak
Cursos para padres y madres, de auto-
aprendizaje o talleres lingüísticos

Mailak | Niveles

Euskalduntze maila guztiak, azterketak prestatzeko
ikastaroak, C2 (4.maila) online, A1 eta A2
Todos los niveles, cursos para preparar exámenes,
cursos online nivel C2 (4º nivel), A1 y A2

Diru laguntzak | Becas

Diru laguntzak eta baldintza bereziak
langabetuentzat
Becas y condiciones especiales para personas
desempleadas

Informazio gehiagorako:
euskaltegia@beasain.eus | Tel.: 943 02 81

Bertso eskola
2016/2017
IKASTURTEA

Matrikula:

2016ko irailaren 12tik
23ra

Matrikularen kostua:

30 euro ikasturtea
Beasaingo udaleko
kultura sailean edo
ikastetxean



Beasaingo Udala